
EAEKO HHEEOO-ETAKO IKASTARO ERDIPRESENTZIALAK

IKASKETA ERDIPRESENTZIALAREN IZAERA

Era autonomoan ikasteko hainbat teknika ikasleen esku jartzea da ikastaro erdipresentzialaren helburua. Bi fase nagusitan garatuko da: alde batetik urrutiko (on-line) fasea edo ikasleak klasetik kanpo beharreko lana izango du, eta bestetik aurrez aurreko fasea edo ikasgelan irakaslearekin eta beste ikaskideekin elkarlanean egin beharrekoa.

IKASTAROAREN METODOLOGIA

Edozein hizkuntza ikastaro bezala, kurtso erdipresentzial honek ere lau trebetasun linguistikoak ditu oinarri: idatzizko ulermena, idatzizko adierazpena, ahozko ulermena eta ahozko adierazpena.

Kurtso erdipresentzialari esker, hizkuntza ikasten ematen den denbora erabat optimizatzen da, trebetasun “pasiboak” – idatzizko ulermena eta adierazpena, eta baita, neurri batean, ahozko ulermena ere – urrutiko fasean era autonomoan lantzen baitira. Horretarako, “on-line” fase horretan, zenbait baliabide tekniko erabiltzen dira, besteak beste, administrazioak gure esku jarritako MOODLE izeneko plataforma, BLOGAK edo beste hainbat baliabide unibertsal eta aske.

Modu horretan, aurrez aurreko fasean ahozko adierazpena era askoz egokiagoan lantzeko aukera izango du ikasleak eta irakaslearekiko zein beste ikaskideekiko elkarreraginean sakondu ahal izango du.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Ikasturteari dagozkion jarduerak 29 edo 30 astetan zehar (oporraldiak kontuan izan gabe) programatuko dira. Asteko egun eta ordu jakin batean 2 ordu eta laurdeneko aurrez aurreko saioa izango da. Saio horietara agertzea nahitaezkoa izango da eta ikastaro arruntetako arautegi bera aplikatuko da huts egiteei dagokienean. Urrutiko fasean egin beharreko jardueren denborak eta epeak irakasleak ezarriko ditu. Eskolatik kanpoko lanak, nahitaezkoak zein hautazkoak, egoki burutu ahal izateko ikasleak gutxienez lau orduko dedikazioa eskainiko die.

JARDUEREN FEEDBACK-A

Ikaslearen jarduera eta lanen zuzenketa edota iruzkinak aurrez aurre zein sareko tresnen bitartez egingo dira. Irakasleak arrazoizko epeak zainduta bidaliko die ikasleei aipatutako feedback-a.

EBALUATZEA ETA EGIAZTATZEA:

Ikasturtea bukatzean ikasleak dagokion maila eta deialdirako diseinatutako probak egingo ditu ohiko ikastaroetako ikasleekin batera. Proba horiek aintzakotzat hartuta egingo da ikaslearen ebaluazioa eta bere maila ere hala egiaztatuko da.

AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOA

Oinarrizko euskarri gisa irakasleak edota ikastaroaren sortzaileak MOODLE erabiliko du, nahiz eta MOODLE bezain eraginkor, egonkor eta lagunkoi den beste edozein plataforma ere erabili ahal izango duen. Tresna horretaz gain, blogak, txat-guneak eta abar ere erabili ahal izango du, osagarri.

Ikasleek ordenagailu edo tablet bat eta interneteko konexioa eskura izan beharko dute.